

EBAZPENA, 2023ko ABENDUAREN 4koa, OSALANeko ZUZENDARI NAGUSIARENA, OSALAN-LANeko SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEAREN 2023ko DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEN DUENA.

Osalaneko zuzendari nagusiaren 2023ko urtarrilaren 17ko Ebazpenaren bidez, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen 2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (DPE) onartu zen.

Prebentziorako Estatuko Fundazioari laguntzak eman ditzan, norgehiagokaraubidean, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzea sustatu eta bultzatzeko jarduerak egiteko. Laguntza horiek autonomia-erkidego bakoitzean gai horretan eskumena duten organoek kudeatuko dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Osalan erakunde autonomoak.

Helburu hori betetzeko, FEPRLen patronatuak funtsak lurraldeka banatzeko proposamena onartu zuen, lehen aipatutako ekintzak finantzatzeko. Proposamen horren arabera, Euskadiri 560.359,33 euro egokitu zaizkio.

Horregatik, eta dirulaguntzen lerro berri bat sartzea xedea izanik, "Laneko Arriskuen Prebentzioaren eremuan jarduerak egiteko dirulaguntzak" izenekoa, egungo DPE aldatu da.

Horrela, indarrean dagoen araudiak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Aldatzea 2023ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde zuzendari nagusiaren 2023ko urtarrilaren 17ko Ebazpenaren bidez onartua.

Bigarrena.- 2023 DPEan sartzea "Laneko Arriskuen Prebentzioaren eremuan jarduerak egiteko dirulaguntzak" izeneko dirulaguntzen lerro berria.

Hirugarrena.- I. eta II. eranskinak aldatzea, non zehazten baitira dirulaguntzen lerro bakoitzaren helburuak, ekintzak eta adierazleak, bai eta zein sektoreri zuzentzen zaizkion eta emateko prozedura ere.

Laugarrena.- DPEren aldaketa argitaratzea Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen webgunean.

Barakaldo, 2023ko abenduaren 4a

Sin.: Lourdes Iscar Reina
Osalaneko zuzendari nagusia

ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZA LERROAK

OSALAN- LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA							
ZUZENDARIORETZA/ AZPIPROGRAMA		HELBURU ESTRATEGIKOA	DIRULAGUNTZA LERROA	2023	2024	2025	GUZTIRA
ZUZENDARITZA NAGUSIA	31130	Laneko segurtasunean eta osasunean inplikaturako eragileen parte-hartzea eta lankidetz	<i>Laneko arriskuen prebentzioaren arloko jarduerak egiteko dirulaguntza</i>	0 €	560.359,33€	560.359,33€	1.120.718,66€

I. ERANSKINA: ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZA LERROAK: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

2. helburu estrategikoa: Laneko segurtasunean eta osasunean inplikaturako eragileen parte-hartzea eta lankidetzak			
5. dirulaguntza lerroa: Laneko Arriskuen Prebentzioaren eremuan jarduerak egiteko dirulaguntza			
1. organoa: Zuzendaritza Nagusia			
1. programa: Laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak sustatzen dituzten sektorearteko jarduerak edo jardura sektorialak egiteko dirulaguntza	2023	2024	2025
1. helburua: Laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak sustatzea			
1. ekintza: Laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak sustatzen dituzten proiektuak diruz laguntzea			
1. adierazlea: ETEei zuzendutako ekintzen kopurua	0	5	5
2. adierazlea: Beste erakunde batzuei zuzendutako ekintzen kopurua	0	3	3

II. ERANSKINA: ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZA LERROAK: Sektore hartzaileak eta emateko prozedura

2. helburu estrategikoa: Laneko segurtasunean eta osasunean inplikaturako eragileen parte-hartzea eta lankidetzak	
5. dirulaguntza lerroa: Laneko Arriskuen Prebentzioaren eremuan jarduerak egiteko dirulaguntza	
1. organoa: Zuzendaritza Nagusia	
1. programa: Laneko segurtasun- eta osasun-baldintzak sustatzen dituzten sektorearteko jarduerak edo jardura sektorialak egiteko dirulaguntza	
Xede diren sektoreak	<ul style="list-style-type: none"> • Azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 12. artikuluan aipatzen diren erakundeak • Dagokion sektorean eta lurraldean ordezkariak duten enpresa- eta sindikatu-erakundeak. • Aurretik aipaturakoek osaturako fundazioak, taldeak edo beste erakunde batzuk
Laguntzak emateko prozedura	<ul style="list-style-type: none"> • Eskerak Ebaluazio Batzorde batek aztertzea • Osalaneko zuzendari nagusiaren ebazpena